

Lezo Dantzari

Murixka eta aurrekoak

Joxe Juan Ugalde Ordoki



Mikel Pontesta

185



*Suletinoa
dantzatzen*

Mikel Pontesta dantzako bi arlorekin erlazionatzen dugu lezoarrok: AurreSKU txapelketarekin eta Goizaldi Dantza Taldearekin. Bera izan zen Pasaian AurreSKU gipuzkoarraz egiten den Euskal Herriko Txapelketan lehenengo txapela irabazi zuen dantzaria.



Lezoar bat Goizaldin. Lehenago ere izan zen bakarren bat. Baina zuk sustraiak bota zenituen taldean. Kontaiguzu haserakoa.

Xixilio Gastesi errenteriarraren eskutik iritsi nintzen Goizaldira, 1972an, 16 urterekin. Garai hartan dantza txapelketatan aritzen nintzen. Lau lagun joan ginen Goizaldira: Rafa Salaberria, Joakin Goya, Patxi Isasa eta ni neu. Nik besterik ez nuen jarraitu. Hogeiren bat urte egin ditut.

Lezoko dantzarekin zer harreman izan zenuen Goizaldira joan aurretik?

Hamalau urte arte Allerrun aritu nintzen. Batez ere dantza Sueltoke txapelketatan aritu nintzen, Maria Rosario Fernandez bikotekide nuela.

Goizaldi izen handiko taldea zen.

1948an sortutakoa da. Juan Antonio Urbeltz, Juan Manuel Oronoz, Iñaki

Kaxarranka dantzatzen





Gordejuela... Dantzari eta koreografo handiak pasatu dira bertatik. Taldeko batzuek gerora balet konpainia profesional izandako Anexa sortu zuten. Haiek Bartzelonara joan ziren. Goizaldik, berriz, Donostian segitu zuen, Musika Kontserbatorioaren egoitzan.

Izen handiko eta diziplina handiko taldea izan da. Zorrotzak izango ziren, bada, entseiuak.


Astean hirutan: astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan; iluntzeko zortzietatik gaueko hamarretara. Neguan ordubete ariketak egiten, eta gainerakoa dantzan. Uda partean dantza gehiago eta ariketa gutxiago. Halere, disziplina norberak jartzen zuen. Dantza gustatu eta bizi egiten genuen. Beti disfrutatu izan dut gehiago entseiuetan, oholtzan edota emanalditan baino.

Gustukoa behar du, bai, astean hirutan Donostiaraino joateko!

Hasieran Errenteriara oinez, eta handik autobusez. Aurrerago bailarako kideren batekin autoan, nik neurea izan arte. Gustura, oso gustura.

Zenbat pertsona zineten taldean?

Hogei mutil eta beste horrenbeste neska.



Zer ikasi zenuen Goizaldin?

Dantza egiteaz gain, jende asko ezagutu dut. Asko. Harreman iturri paregabea izan da. Bertako eta munduko talde askotako jendea topatu dut. Eta ondorio bat ateratu dut: gure hantustearen gaineratik, zatitxo bat besterik ez gurela; gauza txikia unibertso handi horretan. Askotan, baina, esate baterako, Parisa klakea ikastera joan ginenean ohartu nintzen horretaz. Ikastarotxo bat egitera joan ginen. Hemen zerbait ginelakoan, Parisen, klakea ikasten, oso gauza eskasa ginen. Apala izan behar da.

Goizaldiren dantzek Goierriin duten jatorria.

Hori izan da gure eremua. Goierriko dantzen transmisioari eustea izan da gurea. Juan Inazio Iztueta, Olano, Pujana aita-emeak... Pujanatarrek sortu zuten Goizaldi Donostiako Udalarekin akordioa eginda. Ondoren, Juan Manuel Oronozek eta Iñaki Gordejuelak hartu zuten lekukoa. Gordejuela izan dut irakaslerik onena. Urratsik zailena xehe-xehe erakusteko gai zen.

Zein dantza egiten zenuten?

Goierriko dantzak: Ezpata Dantza, Uztai Dantza, Zinta Dantza, Makil Handi, Makil Txiki, Belauntxingo, Brokel Zikloa... Horiez gain, Euskal Herriko beste dantza batzuk: Gipuzkoakoak, Bizkaikoak, Zuberoakoak, Nafarroa Beherekoak...

Zein urte-sasoitan izaten ziren emanaldiak?

Uda partean, batez ere. Astebururo izaten genituen emanaldiak. Euskal Herri osoan aritzen ginen; Ipar Euskal Herrian asko eta asko, turismoarentzat. Taldean udako bidaiara joateko edo zuzendaritza bileretan hitza izateko, urtean berrogei emanalditan parte hartu beharra zegoen.

Nazioartera asko irteten zen garai hartan Goizaldi.


Udan joaten ginen nazioartera. Hamaika herrialdetan izanak gara: Alemanian, Irlandan, Erresuma Batuan, Belgikan, Danimarkan, Norvegian, lehengo Jugoslavian, Frantzia, Espainian, Suitzan, Austrian, Kuban, Estatu Batuetan lau aldiz...

Emankizun berezirik ba al zenuten?

Bai. Taldeak bazuen Donostiako Udalarekin halako lotura edo hitzarmen moduko bat. Beraz, ekitaldi ofizialetan guk dantzatu behar izaten genuen.

Zati batean behintzat, Francoren garaiaz ari gara.


Francori ez nion inoiz dantzatu; bere ministroei bai, ordea. Pagoetako etxe batera etortzen ziren. Han aizkolariak, harri jasotzaileak, dantzariak... izaten ziren.




Behin, 1973an, Juan Carlos printzea (gaurko erregea) etorri zen Zizurkilgo Nekazaritza Eskola inauguratzera. Emanalditan aritzen nintzen lehenengo urtea zen niretzat. Hari dantzatu behar izan genion. Baina... saltsa handia sortu zen taldean. Dantzari batzuk Juan Carlos printzeari dantzatzearekin ados ez zeudenez, utzi egin zuten taldea. Garai bateko dantzarietara deitu behar izan zieten emanaldi hura aurrera atera ahal izateko. Ni hasi berria nintzen.

Dantza taldeen arteko txapelketatan aritzen al zen Goizaldi?

Ni sartu aurretik bai. Nik ez dut hori ezagutu. Baina... ba al du zentzurik dantza taldeen arteko norgehiagokak? Zertan aldera litezke Ukrainiako eta Euskal Herriko dantzak? Txapelketetikiko kritikoa naiz.



*1981ean Pasaian,
Euskal Herriko txapeldun.*



Mikel Pontesta Aurrekuarekin lotzen dugu. Zu izan zinen Pasaian Aurreku gipuzkoarraz egiten den Euskal Herriko Txapelketako lehenengo irabazlea.

1981ean izan zen. Hogei partaide baino gehiago ginen. Hurrengo urtean hirugarren geratu nintzen. Garai hartan txapelketa gutxi batzuk egiten ziren: Erreterian, Pasaian, Idiazabalen... Gu denbora pasa joaten ginen. Ez ginen lehia zale.

Urte haietan izan al zenuen inolako loturarik Lezoko Dantza Taldearekin?

Patxi Larreak laguntza eskatu zidan, nik Goizaldin ikasitakoa Herrira ekar nezan. Eta, hala, bolada batean Herriko Taldeari erakusten aritu nintzen.

Dantzari izateaz gain, ardura batzuk ere izan dituzu Goizaldin.

Arropen ardura bolada batean. Aurrerago, Dantza Taldearen zuzendaritza artistikoa hartu nuen.

Juan Antonio Urbeltzen ikuskizunetan partaide izan zinen. Azalpena behar du Goizaldiko dantzari bat Argia taldearen inguruan ikusteak.

Urbeltz beti izan da maisu handia. Ikuskizun handi eta bereziak egiten ziotuen: "Alakiketan", "Zortziko", "Irradaka"... Eta Goizaldira jo zuen dantzari bila. Guk begi onez ikusi genuen egitasmo berritzaile haietan parte hartzea. Ez zuen talka egiten geure taldearen ibiliarekin, nahiz eta gutako zenbaiti hala iruditu. Taldekide batzuek utzi egin zuten bide hori. Nik Urbeltzen hainbat ikuskizunetan hartu nuen parte. Goizaldi utzi eta gero ere bai.

Goizaldi utzi.

Denak du bere hasiera eta amaiera. Ezkondu ondoren utzi nuen taldea. Gaur egun ez dut loturarik dantzarekin. Oroitzapenetan, hori bai.

Argiari buruzko guztiak ez dituzu esan.

Han ezagutu nuen Amaia emaztea. Taldekide izan ginen.

Familian ere utzi duzu dantzaren arrastoa.

Mederi ilobak hartu zuen lekukoa. Murixan eta Eskolan ari da gaur egun.

Nori eskaini diozu dantzarik hunkigarriena?

Gurasoak gutxitan joan ziren ni ikustera, bizpahiru aldiz besterik ez. Beren urrezko ezteietan dantzu nien. Dantzan inoiz izan dudan sentipenik ederrena.

